LEHENENGO ARIKETA. (5 puntu)

Ariketa honetan gai baten inguruko 5 testu (1-5) dituzu alde batetik, eta iritziak laburtzen dituzten (A-H) esaldiak bestetik. Zuk taulan parekatu behar dituzu. *0 zenbakia* adibidea da, eta bi esaldi sobran daude.

INGURUMENA

0. Ia arnastu ezinezko eguratsa

Munduko eztanda demografikoak eta industriaren aurrerakadak eguratsean pilatzen diren gai kutsatzaileak gehitzea eragin dute. Gehitze horrekin batera, heriotza tasa eta gaixotze tasa ere ikaragarri handitu dira, eta froga garbiak daude atmosferaren kutsadurak gizakion osasunari kalte egiten diola adierazteko.
Atmosferako kutsadurak eta gizon-emakumeengan bronkitis kronikoa agertzeak elkarrekin zerikusia dutela baieztatu da. Bestalde, SO2-ren eta airean dauden partikula kutsatzaileen kontzentrazioek aire metro kubiko bakoitzeko 500 mikrogramo gainditzen dutenean, biztanleriaren heriotza tasa handitu egiten dela ere frogatu da, batez ere bihotz eta biriketako gaixotasunak dituztenen artean.

1. _____

Ezin dugu pentsatu burbuila batean bizi garela; izan ere, etengabeko harremana dugu gure ondoko ingurune naturalarekin eta ingurune horrek eskaintzen dizkigun baliabide guztiak erabiltzen ditugu. Ingurune horren kalitatearen menpe dago gure bizitzaren kalitatea.
Kezkagarriena da erasoen erritmoa ez dela moteldu, bizkortu baizik. Milioika lagun erabat hondatutako ingurumenean bizi dira eta euren bizi itxaropena arrisku larrian dago.
Ditugun aztarnen arabera, klima gure bizimoduaren ondorioz aldatzen ari da; horrek ingurumenaren aldaketa larria dakar, eta ondorengo belaunaldien bizitza baldintzatuko du.
Bateragarria al da garapen ekonomikoa gure ingurumena zaindu eta kontserbatzearekin? Erantzuna baiezkoa bakarrik izan daiteke; bestela, planetaren bizitzari iraungitze data jarri beharko genioke. Irtenbidea garapen jasangarria da, bizitzeko modu garbiagoak bilatuz.

2. _____

Gizakiaren presentzia arazo larria bihurtu da ingurumenarentzat, etengabe gauzatzen dituen jarduera kaltegarriez aparte. Arazoa Lurrean bizi garen biztanle kopuruagatik sortu da: 6.000 milioi pertsona gara.
Landako biztanle gehienak bere ingurunearekin harmonian bizi dira. Arriskua hiriko aglomerazioetan dago, inguruneari eraso egiten diotelako eta kutsatzeko gero eta ahalmen handiagoa dutelako.
1950. urteaz geroztik hirietako populazioa hirukoiztu egin da; orduan 750 milioi lagun inguru bizi ziren hirietan; gaur egun, berriz, 3.000 milioi dira. Aurreikuspenen arabera, mundu garatuko hirietako populazioa bikoiztu egingo da: 2000an 1.900 milioi izatetik 2030ean 4.000 milioi izatera pasako da.

3. _____

Espainiako Estatuko administrazioak abian jarri ditu garapen jasangarria bultzatzeko irtenbideak. Horretarako, 2002an dokumentu bat prestatu zuen. Bertan ingurumenaren inguruko irtenbide eta helburuak adierazten dira, eta bost urteko epea ezartzen da dokumentua berrikusi eta egokitzeko.
Dokumentuaren helburua ez da, besterik gabe, Natur ingurunea babestea, Rioko Gailurrean sortu zen garapen jasangarriaren kontzeptuari bete-betean eustea baizik. Kontzeptu horretan funtsezko gai batzuk sartzen dira, esate baterako, hazkundea eta natur ingurunearen babesa bateragarri egitea. Honako hau da Garapen Jasangarriaren Estrategiari begira hartutako konpromiso nagusietako bat:

2010. urterako karbono dioxidoaren (CO_2) isurketa % 20 murriztea, 1990eko isurtze-maila kontuan hartuta

4. _____

Ingurumenari buruzko kezka XIX. mendearen amaieran piztu zen. Garai hartan "anbientalismoa" izeneko joera sortu zen, eta haren ondotik gaur egun ezagutzen ditugun lau joerak etorri dira: joera protekzionista, kontserbazionista, ekologista eta garapen jasangarria.
Protekzionisten helburu bakarra landaretza eta fauna babestea da, eta horretarako lehen zooak eta lorategi botanikoak eratu zituzten.
Kontserbazionistak joera protekzionistatik sortu ziren. Haien ustez, landaretza eta fauna babesteko, lehenbizi euren habitatak babestu behar zituzten. Horretarako parke naturalak sortu zituzten.
Talde ekologistak neurri erradikalagoak hartzeko asmoz sortu ziren. Ekologisten iritziz, kontserbazionisten ekintzen bidez oso epe luzera lortzen baitziren emaitzak.
Garapen jasangarriaren aldekoek diotenez, berriz, gaur egungo munduaren interes ekonomikoak eta ingurumenaren babesa erabat bateragarriak dira.

5. _____0

Gero eta gehiago dira beren jardueretan ingurumena errespetatzeko kontzeptu orokorrak oso kontuan hartzen dituzten enpresak. Kontua ez da bakarrik gauzak garbi egitea, isurketa kutsagarriak saihestea edo birziklapen prozesuak garatzea.
Enpresek ingurumena errespetatzeko bereziki antolatutako jarrera-eredu batzuk ezartzea da kontua.
Beren jardueran enpresek baldintza batzuk bete behar dituzte, eta prozedura horiek egokiak diren edo ez erakunde neutral batek egiaztatzea onartu behar dute. Hala egiten dutenean, enpresek ingurumenaren bideraketa onaren ziurtagiria jasotzen dute.
Ziurtagiri hori ez da industri jardueretan bakarrik erabiltzen; era guztietako zerbitzu eta jardueretan aplikatzen da eta errepideak eraikitzeko lanei, udaletxeen funtzionamenduari edo mendiko kiroletarako instalazioei eragiten die.
Zer egin behar du enpresa edo erakunde batek ingurumena errespetatzen duen bideraketa on hori lortzeko? Lehenengo urratsa ingurumenari eragiten dioten atal guztiak identifikatzea da, isurkinetatik hasi eta gai kutsagarrietaraino, fabrikazio edo produkzio prozedurak ere kontuan hartuz. Gero plan zehatz bat ezarri behar da eragin horietako bakoitza ezabatu edo arintzeko.

IZENBURUAK

A. Gobernuek hartu dute beren gain ingurumena zaintzearen ardura.
B. Herritarrok ere sortzen ditugu hondakin toxikoak.
C. Ia arnastu ezinezko eguratsa.
D. Ingurumena zaindu ezean, ez du luzaroan iraungo.
E. Ingurumena zaintzea ez da gaur goizeko kontua.
F. Kontsumo desegokiak ondorio ekologikoak dakartza.
G. Zenbat eta biztanle gehiago, orduan eta inguruneari kalte handiagoa.
H. Zer egiteko prest daude enpresak eta erakundeak?

Galderak	**0**	**1**	**2**	**3**	**4**	**5**
Erantzunak	**C**					

BIGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Ondoren, Argia aldizkariko artikulu bat duzu. Hurrengo orrialdean 5 (6-10) galdera dituzu. Galdera bakoitzean 3 erantzun dituzu (a, b, c) eta bat bakarrik aukeratu behar duzu. *0 zenbakia* adibidea da.

LURREKO TELEBISTA DIGITALA (LTD)

Ez genuen haren behar handirik, baina hemen da Lurreko Telebista Digitala. Abantailaz betea, buruhausterik ere sortzen ari da. Eta batik bat, iraultza ekarriko du telebistara. Iraultza isila eta geldoa agian, baina handia. Itzalaldiaren ostean, ezer ez da berdin izango.

Telebista digitala ez zaigu guztiz arrotza. Urteak dira satelite bidezkoa ezagun dugula; ez hainbeste, gurean, kable bidezkoa. Orain, urte gutxiko prozesu azkar batean, beste sistema bat datorkigu: Lurreko Telebista Digitala (LTD). Hau da, ohiko uhina ohiko antena bidez zabaldua, baina teknologia digitala aplikatuz. Gaur egun ia etxe guztietan dagoen telebista analogiko arruntarekin alderatuta, LTDak hainbat abantaila du: kate gehiago ikusteko aukera, eta irudi eta soinu hobeak, besteak beste. Berez, kableak eskaintzen du kalitaterik handiena, baina LTDa bultzatu da. Badira hainbat arrazoi horretarako; esaterako, kablea instalatzeko arazoak orografia latza duten herrialdeetan, baina alde horretatik LTDak ere ematen ditu buruhauste franko satelitearekin konparatuta. Bada beste sistema berriago bat, ADSL bidezkoa, oraingoz ez oso zabaldua, baina adituen esanetan besteak baino hobea. Zergatik orduan LTDa?

Arrazoi nagusiak ez dauka zerikusirik ikusleen eskariekin edo telebista kateen nahiekin. Askoz praktikoagoa da: espektro erradioelektrikoa ez da infinitua. Aitzitik, ondasun urria da, eta teknologia digitalak ondasun hori optimizatzeko aukera eskaintzen du. Ohiko sistema analogikoan kanal bat sartzen den lekuan, sistema digitalari esker lau inguru sar daitezke. Horrek eragin du Europa osoan, eta munduko gainerako herrialde aberatsetan, LTDa bultzatzea azken hamarkadan. Gainerakoak, pobreak, motelago dabiltza, baina luze gabe iritsiko zaie txanda. Jakina, digitala ezartzeak analogikoa kentzea dakar. Espektroan “lekua” utzi behar da.

Europako dozena erdi herrialde txikik burututa dute dagoeneko itzalaldi analogikoa. Gainerakoak datozen lauzpabost urteetan iritsiko dira helmugara. Euskal Herrian bi data ditugu: 2010eko apirilaren 3a Hegoaldean eta 2011ko azaroaren 30a Iparraldean. Hortik aurrera ezin izango dugu, nork bere aldean, telebista analogikoa ikusi.

Itzalaldia eta gero zer?

LTDa unibertsal bihurtzeak hainbat arlotan eragingo dio telebistarekin dugun harremanari. Batetik, edukiak berriz diseinatzera behartuko ditu kateak, nahiz eta ez dagoen guztiz argi nola. Baina modu batean edo bestean, gaur egungo ereduarenak egin du; Espainiako telebista kontsumitzaile elkarte nagusiek ez dute zalantzarik horretaz. “Kate jeneralista handien negozio eredua desagertu egingo da”, dio Alejandro Peralesek, Komunikazioaren Erabiltzaileen Elkarteko (AUC) presidenteak; “gaur ikusleak saltzeaz bizi dira baina hori agortu egingo zaie LTDarekin”. Norbaitek gogoan badu “hainbeste segundoko iragarkiak hainbeste balio du” leloa, ahantz dezala. XXI. mendean, iragarleekiko tratuak beste era batez egiten dituzte telebista operadoreek: nik bermatu egiten dut ikusle kopuru jakin bat egongo dela telebista aurrean zure iragarkia ematen den unean, eta zuk hainbeste ordaindu behar didazu

trukean. Horrek esplikatzen du audientzia guduaren garrantzia. Baina LTDak audientzia handiak hautsiko ditu, eskaintza askoz zabalagoa izango baita. Nekez lortuko du inork bi edo hiru milioi ikusle erakartzea, programa beraren aurrean.

Kateen indarra, analogikora bideratuta oraindik

Orain *simulcast* aroan gaude. Analogikoa ez da desagertu, baina digitala ikus daiteke jadanik. Euskal Herrian, bai Iparraldean bai Hegoaldean, 2005ean hasi zen LTD bidezko emisioa, legediak behartuta. Analogikoan ikus daitezkeen telebista jeneralistek badituzte kanal digitalak beraz. Horrek aztarna ona eman liezaguke aro digitalean ikusi ahal izango denari buruz, baina ez da fidatzea komeni. Gaur gaurkoz, LTDa ikusi ezin dezakeen jende gehiegi dago oraindik. Negozioak analogikoan segitzen du, eta ahalegin gehienak horretara bideratuta daude. Hasieran, kanal digitala irekitzera behartu zituztenean, Espainiako telebista jeneralista gehienek analogikoan zuten programazio bera emititzen hasi ziren. Geroago, Madrilgo Gobernuak akuilatuta, kate berri batzuk sortu zituzten, baina momentuz, horietan ikus daitekeena ez da oso erakargarria.

Unai Brea. Argia. Moldatua.

GALDERAK

0. Lurreko telebista digitala.

   a) Abantaila asko izan arren, buruhausteak ere sortu ditu.
   b) Itzalaldia izan eta gero, gauza gutxi aldatuko dira.
   c) Lurreko Telebista Digitala jartzeko behar handia genuen.

6. Lurreko telebista digitalak

   a) antena berriak izan beharko ditu.
   b) gaur egun ia etxe guztietan du lekua.
   c) orain arte izan den uhina izango du.

7. Kalitateari dagokionez,

   a) une honetan kablearena da handiena.
   b) Lurreko Telebista Digitalak du handiena.
   c) sistema berri ugari dira kableak baino kalitate handiagoa dutenak.

8. Kanalez hauxe esan behar da:

   a) Betiko sistema analogikoan digitalean baino kanal gehiago sartzen direla.
   b) Sistema digitalean analogikoan beste kanal sartzen direla.
   c) Kanal kopurua sartzeko diferentziak bultzatu duela LTDa azken hamar urteotan.

9. Lurreko telebista digitala eta audientzia.

   a) Audientzia ez da orain artekoa bestekoa izango.
   b) Programa bera lehen baino jende gehiagok ikusiko du.
   c) Iragarkiek ikusle gehiago izango dituzte.

10. Gaur egun

a) jende ugarik ikus dezake LTDa.
b) negozioa, batez ere, digitala da.
c) sortu diren kate digital berriek erakargarritasuna lortu behar dute oraindik.

Galderak	**0**	**6**	**7**	**8**	**9**	**10**
Erantzunak	**A**					

HIRUGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Testu honetan 5 hutsune daude. Zazpi aukera eskaini zaizkizu. Hutsune bakoitzari dagokiona aukeratu ondoren, osatu testua. *0 zenbakia* adibidea da.

EUSKAL HERRIA EZAGUTUZ: IZKIKO PARKE NATURALA (ARABA)

Mendialdea Arabako ingururik ederrenetakoa dela esatea ez da gehiegikeria. Sei udalerrik osatzen dute natura (0)_____ baino biziago dagoen eskualde hau: Arraia-Maeztuk, Bernedok, Kanpezuk, Aranak, Lagranek eta Urizaharrak. Izkiko Parkea ere gordetzen du bere baitan Arabako Mendialdeak. Herrialdeko altxorrik ezezagunena.

Izkiko mendigunea 1998an izendatu zuten parke natural; paisaia ugari biltzen ditu bere baitan ia 10.000 hektareako _____(11)_____, eta EAEko hirugarren handiena da. Kapildui tontorra da, 1.175 metrorekin, punturik altuena; baxuena, berriz, Bujanda herria: 600 metro inguru dituelarik.

Aipagarria da Izkiko Parke Naturalak bere hedaduran ezkutatzen duen paisaia aniztasun ikaragarria: kare-haitzezko mendi kasko ikusgarriak, hezegune ezkutuak, baso itxi eta aberatsak… Durruma Kanpezu eta Korresetik gertu dauden Muela (1.056 m) eta Soila (989 m) dira agian mendizale gehien erakartzen dituzten gailurrak. Ezin ahaztu, ordea, parkearen bestaldean, Apinaiz eta Arluzeatik gertu dauden San Kristobal (1.057 m), San Justi (1.023 m) eta iparralderagoko Kapildui (1.175 m) gailurrak, talaia berdingabeak, denak ere. Haitzarte handi eta ikusgarriak osatzen dituzte gailurrok, eta bisitariei bista panoramiko ederrak eskaintzen.

Izki, funtsean, basoa eta haitza da. Zalantzarik gabe, ametza (quercus pirenaica) da _____(12)_____, bertako ameztia Europako handienetakoa baita. Horrez gain, pagadiak, haltzadiak, erkameztiak, urkidiak –Euskal Herriko handiena bertan dago–, lertxundiak, hariztiak eta beste hainbat espeziez osaturiko baso aberatsak aurki daitezke. Soila mendiaren magalean, esaterako, Aparteko Zuhaitz izendatutako hagin bat eta ezki bat daude, parkeko altxorren erakusgarri.

Izki, Molino eta Berron errekek zeharkatzen dute harana, beste hainbat erreka txikiagorekin batera. Zenbait gunetan ura azaleratu egiten da, putzuak eta zohikaztegiak _____(13)_____. Hezegune horiek anfibio eta hegazti aipagarri ugariren topaleku dira, baita landare bitxi askoren –haragijaleak, zenbait– sorleku eta haztegi ere.

Izkik fauna anitza eta ugaria du. Zeru gainetan hegaldaka dabiltza arrano beltza, belatz handia, sai zuria eta sai arrea. Izkiko kareharrizko amildegietan egiten dituzte habiak, Muela gailurraren hegoaldean, kasu. Aipagarria da gainera okil ertainaren presentzia, Izkin dagoen amezti kopuru handiari esker, neurri batean. Bestalde, 150 ornodun espezie baino gehiago ere badago.

Natur ibilbideak

Izkiko Parke Naturalak egoki markatutako hamasei _____(14)_____ osaturiko sarea dauka, bisitariak parkean barrena galtzeko inolako arriskurik gabe gidatzeko prestatuak. Horrela, Izkiko paisaia ederraz gozatu, bertako fauna eta flora bertatik bertara behatu eta herri-guneetako tradizio eta ohiturak hautemateko aukera izango dute Arabako Mendialdeko ingurune honetara inguratzen diren guztiek.

Luzera eta zailtasun desberdinetako ibilbideak egin daitezke Izkin. Edozeini jarraituz, bisitaria Parke Naturaleko txoko interesgarriren batera helduko da beti. Nabarmendu beharrekoa da Mandazainen bidea _____(15)_____ ezaguna den ibilbidea, ehun urtetik gorako bideari jarraituz basoa zeharkatzen duena, Apinaizetik Kintanaraino. Isilik joanez gero, ameztien gerizpean, okil ertainaren kantua zein baso igel jauzkariaren korroka entzun daitezke. Zorte handiagoa lagun, basurdea ere ikus genezake agian. Muela, Soila eta Kapildui gailurren moduko harkaitz gune ikusgarriak, bestalde, ibilbide askotatik izango ditu bisitariak ikusgai. Izki estreinakoz bisitatzen duen naturazaleak berehala igarriko du zergatik den gune babestua. Zentzumenak askatu eta inguruak gordetzen duen aberastasuna arretaz sumatzea besterik ez dago.

Gorka Azkarate. Argia astekaria. Moldatua

AUKERATZEKO SINTAGMA EDO ESALDIAK:

A. inon

B. bere baitan

C. bidezidorrez

D. hedaduran

E. izenez

F. gailurrok

G. sorraraziz

H. zuhaitz motarik esanguratsuena

Hutsuneak	**0**	**11**	**12**	**13**	**14**	**15**
Erantzunak	**A**					